

Lanabesen zaintza egokia

Etxean daukagun edozein objektu zaintzen dugun bezala, oso garrantzitsua da baratzerako lanabesak zaintzea. Gehiegizko zaintza-lanik behar ez duten arren, gutxieneko mantentze-lanik egiten ez badugu, hortik denbora batera, erremintak edo lanabesak hondatu egingo dira eta ez dira hain eraginkorrak izango.

Tresnak modu egokian mantentzeko oinarrizko arau bat da erabileraren ondoren, beti tresna garbitzea. Karrakailu baten laguntzaz, itsatsitako lur guztia kenduko dugu eta toki lehorrean gordeko ditugu. Erremintak baratzean ahaztuta uzten baditugu, hezetasunaren eraginez herdoildu egingo dira eta harrapatu egin diezazkigukete; hori dela eta, garrantzitsua da tresnak ondo gordetzea. Lurra oso itsatsita gelditzen bada, horrek adieraziko digu baratzea ez dugula sasoi egokian landu, horregatik, adierazle gisa erabil genezake.

Kalitate oneko lanabesak

Erreminta edo lanabesa kalitate onekoa izan arren, (hori da gomendagarriena, bestela, epe luzera, askoz diru gehiago gastatuko baitugu), modu egokian erabiltzen ez badugu, edozeinek kirtena apur edo burdina oker dezake.

Laia erabiltzerakoan, adibidez, lurra oso gogorra bada edo lurretik ateratzeko zaila den harri bat aurkitzen badugu, pixkanaka-pixkanaka tresna lurrean sakonduz egin beharko dugu lana.

Askotan, tresnaren heldulekua edo kirtena solte gelditzen da eta ezin da modu egokian lanik egin. Horrelakoetan, biltzeko-gunea uretan sartuko dugu, uretan sartzerakoan kirtena edo heldulekua puztuko da eta hobeto lotuta / helduta geldituko da.

Lainoztatzaileei dagokionez, produktu ekologikoak erabili arren, erabilera bakoitzaren ondoren, gogoz garbitu beharko dugu. Minutu batez ur garbiarekin lainoztatzea aholkatzen da eta horrez gain, filtroak ere garbituko ditugu.

Bukatzeko, kontuan izan behar dugu onena dela hondatzen hasi bezain laster, tresna konpontzea eta ez itxarotea guztiz hondatu arte, orduan beranduegi izango baita.

Mantenimiento adecuado de las herramientas

Al igual que cuidamos cualquier objeto que tengamos en casa, es importantísimo cuidar las herramientas de nuestra huerta. Aunque no necesiten un cuidado excesivo, si no realizamos un mantenimiento mínimo, al cabo de un tiempo, las herramientas se irán estropeando y no serán tan eficaces.

Una de las reglas básicas en cuanto al mantenimiento de las herramientas es el de limpiar la herramienta siempre después de utilizarlos. Mediante la ayuda de una rasqueta, debemos quitar toda la tierra que se haya quedado adherida y las guardaremos en un lugar seco. Si nos olvidamos la herramienta en la huerta esta empezará a oxidarse por la humedad, además de estar expuesta a los robos, de ahí la importancia de guardarla adecuadamente. Tenemos que tener en cuenta que si la tierra ha quedado muy pegada a la herramienta, será señal de que hemos trabajado la huerta sin un buen tempo, por lo que nos puede servir como indicador.

Herramientas de buena calidad

Aunque la herramienta sea de buena calidad (que es lo más aconsejable, ya que de otro modo a la larga nos gastaremos mucho más dinero), si no la utilizamos correctamente, cualquiera es capaz de romper el mango o torcer un hierro. Por ello, no debemos nunca forzar una herramienta. Por ejemplo, al utilizar la laya, si nos encontramos con una tierra muy dura o una piedra difícil de sacar, deberemos de realizar la labor profundizando poco a poco con la herramienta.

Muchas veces, el mango de la herramienta queda suelto y no se puede trabajar correctamente. En estos casos, se puede meter la zona de unión de la herramienta en agua, ya que con el contacto con el agua, el mango se hincha y la herramienta queda más sujeta.

En cuanto a los pulverizadores, aunque utilicemos productos ecológicos, deberemos de limpiarlos concienzudamente después de cada uso. Conviene pulverizar durante un minuto agua limpia además de limpiar los filtros.

Para finalizar, tenemos que darnos cuenta de que lo mejor es arreglar la herramienta en cuanto empiece a estropearse y no esperar a que se estropee del todo, ya que entonces puede ser demasiado tarde.